

AGURRA MARCELO USABIAGA GUDARIARI



Usabiaga, hil aurreko elkarriketa batean. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Kasik 99 urte zituela hil zen Marcelo Usabiaga miliziano eta gudaria joan den uztailean. Ordizian jaioa zen arren, Hernanin egin zuen bizimodua urte luzez. Bere azken egunetaraino jardun zuen bere azalean sufritutako gerra kontatzen, «gerrak ez duelako ezer onik ekartzen». Lau aldiz izan zen atxilotua eta 21 urte eman zituen preso kartzela desberdinetan. Hirutan zauritu zuten balaz, baina bizi osoa izan zuen injustiziak salatzeko.



Abenduaren 19an jantzi zuen Beñat Gaztelumendik Gipuzkoako txapela Illunben 7.200 bertsozaleren

PERIKO SOLABARRIA, NEKAEZINA

Ekainean hil zen Periko Solabarria, 85 urte zituela. Ezker abertzaleko kide historikoa eta militante nekaezina zen eta, osasunak baimendu zion neurrian, azkenera arte kalean hainbat protestatan ibili zen. Barakaldon bizi zen eta hainbat plataformarekin gogor lan egin zuen azkenera arte.




Militantzia eredu nabarmena izan da Solabarria. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

HEMERETZI HILDAKO, AMIANTOZ

Amianto mineral kantzerigenoa enpresa eta etxebizitzetan erabili izan da (oraindik ere erabiltzen da zenbait tokitan), eta hiltzaile isila izaten ari da, batez ere hura arnastuz biriketakoko minbizia sortzen duelako. Aurtengo urtea ere ez da samurra izan, azaroaren amaieran dagoeneko hemeretzi baitziren 2015ean amiantoaren eraginez hildakoak. Albiste baikorrena epaitegietatik etorri da; amiantoa zuen senarraren arropa garbitzearen ondorioz hildako emakumearen heriotza aitortu dutelako.



Amiantoaren aurkako protesta bat. GAUR8



BEÑAT GAZTELUMENDIK GIPUZKOAKO TXAPELA

Maiatzean abiatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta abenduaren 19an iritsi zen azken geltokira, Illunbeko finalera. Hirugarren finala Illunbeko plaza-
rentzat eta hirugarren finala Beñat Gaztelumendi
añorgatarrarentzat. Eta, hirugarrenean, bai, txapela
etxeratu zuen. Oholtzan zein oholtzatik behera hazi
den bertsolaria da añorgatarra, eta ibili behar duen
bidea gero eta argiago duena. Alaia Martinekin iritsi
zen buruz burukora eta erremate gogoangarria eman
zioten elkarlanean, belaunaldi berri baten erakusga-
rri. Jendetsua izan da Gipuzkoako Txapelketa eta
Illunbeko finalean 7.200 bertsozale bildu ziren.

aurrean. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

MIKEL URRUTIKOETXEAK BI TXAPEL

Mikel Urrutikoetxea zaratamarrarentzat urte biribila izan da. Bi txapela
jantzi ditu: lau t'erdikoa eta buruz burukoa. Buruz burukoa Aimar Olaizola-
ri irabazi zion, eta baziren 38 urte txapel hori ez zihoala Bizkaira. Lau t'er-
dikoa Irujoren parean jantzi zuen, eta Bizkaira eraman 62 urte eta gero.



Urrutikoetxea, pozik, lau t'erdiko txapelketa irabazi berritan. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

INDARKERIA MATXISTAK BESTE SEI EMAKUMEREN HERIOTZA ERAGIN DU



Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

Zoritxarrez, urteari errepasso egiten dion GAUR8
honetan beste behin indarkeria matxistaren biktimei
tartetxoa eskaini beharrean gaude. Aurtengoan,
Euskal Herrian sei emakumek galdu dute bizia eta
makina bat izan dira indarkeria sexista euren azale-
an sufritu dutenak. Uda sasoian jaiz jantzitako kale-
ak bilakatu ziren indarkeria molde honen testigu, bai
eta gero eta oihartzun handiagoa duten protesta
ekitaldien agertoki ere. Gertatu zitekeenari aurre
hartu nahian jai batzorde edota eragile hainbatek jai
eremuan emakumeen aurkako indarkeria eragozteko
protokoloak onartu zituzten jaien atarian. Onartu eta
abian jarri. Ez zen nahikoa izan eraso hainbat saihe-
teko, baina bai herritarren kontzientzian eragin eta
salaketa kalera eramateko. Ondoko irudian, Iruñeko
Udaletxe plaza jendez gainezka ageri da. Jendetza
ez dago txupina noiz botako; hark abiatutako jaiak
eten eta eraso bat ozen salatzekeo baizik.